FANUC Tornua: G kodearen programazioa (Gela Birtuala)

Nori zuzenduta

Torneaketa-prozesuetan pieza-programak egin nahi dituzten langileak, produkzio-, muntaketa- eta mantentze-arloetakoak edo beste arlo batzuetakoak, ezagutzak eta gaitasunak handitu nahi dituztenak.

Helburuak

- CNC programak egitea, piezak torneaketaren bidez mekanizatzeko.
- Beharrezko ezagutza teoriko eta praktikoak lortzea, CNCrantz behar bezala birziklatzeko.

Edukiak

- ISO – Fanuc programazioa. Sarrera.
- Erreferentzia-sistemak: pieza-zeroen taulak zehazteko eta haiekin lan egiteko moduak.
- Ibilbideen programazioa.
- Alaka eta biribiltze automatikoaren programazioa.
- Erreminta-konpentsazioak.
- Torneaketa-zikloak: ziklo sinpleak eta ziklo anitzak.
- Zulaketa-, mandrinaketa- eta otxabuketa-zikloak.
- Azpiprogramak.
- Simulazio bidezko programazioa.

Aurrez jakin beharrekoak

Oro har, torneaketa-prozesuei buruzko oinarrizko ezagutzak edo lan esperientzia.

Fabrikazio-planoen interpretazioari buruzko oinarrizko ezagutzak.

Ikasleek Interneterako konexioa duen ekipo informatikoa eduki beharko dute.

Parte-hartzaileek lizentzia eskuratu ahal izango dute ikasturtean zehar

Izena emateko eta informazio gehiagorako

IMH: 943 74 82 66 www.imh.eus